


BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**BOULEVARD ZUMARDIA 23**

Egilea eta data: Jose Galo Aguirresarobe; 1865.
(Udal Artxiboan ez dago jatorrizko proiekturik).

Deskribapena

Jatorrizko eraikinetik behe oineko arkuteria eta bastardea bakarrik gordetzen dituen kantoiko etxea. Antzinako hiru goi oinak XXI. mendearen hasieran eraitsi zituzten, ondoren, jatorrizkotik bereizten zen beste fatxada soluzio bat altxatzeko, bao eta begiratoki berriekin, eta beste etxebizitza aprobetxamendu batekin. Eraitsi aurretik, etxe hau zabalduraren hasierako neoklasiko isabeldarraren adibide argienetako bat zen. Fatxadek gorde egiten dituzte beheko eta lehen solairuko arkuak eta Joaquin Irizarren 1946ko estaldura. Marmolezko plakak, ordena jonikoa irudikatuta; proiektuan beheko solairu osoa hartzen zuen, baina izkinan besterik ez zuten egin. Beheko solairuko lokala bi altueratan zatitzea izan zen fatxada berri haren helburua

Babes erregimena

1. Babes erregimen orokorra.

Plan berezi honen C babes graduan sartzearekin lotutakoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, fatxadako baoen konfigurazioa, instalazioen ezarpena, publizitate elementuak, seinaleak eta olanak eta abar babes maila hori arautzeko Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretan ezarritako irizpideetara egokituko da, baldin eta egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta horri eustea babestu beharreko arkitektura proiektuarekin bat etortzeagatik justifikatuta ez badago.

2. Babes erregimen espezifikoak

- A. Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: jasodurak (goiko 6. solairuaren gainetik dauden solairuak).
- B. Fatxadako elementu edo alderdi iraunkorrak: beheko eta lehen solairuko arkuak, izkinako lokalaren ordena jonikozko estaldura.
- C. Esku hartzeko murriztapen partikularrak: ez.
- D: Nahitaezko lehengoratzak: ez.